

PELLO
SALABURU

ERRATEKO NITUENAK

CUZCOKO KRONIKA



BAKANAK

Errateko nituenak
Cuzcoko kronika

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Maketazia:

Erein

© Pello Salaburu

© EREIN. Donostia 2014

ISBN: 978-84-9746-895-4

L.G.: SS-467/2014

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: erein@erein.com

www.erein.com

Imprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: itxaropena@itxaropena.net

www.itxaropena.net

Errateko nituenak

Cuzcoko kronika

Pello Salaburu



erein

*Carmen, Peru eta Iñigori,
zerbait gehiago jakinen dute nire bizitza isilaz.*

SARRERA

2012ko udazkenean lan bidaiaria egin behar izan nuen Cuzcora. Uzta-pidek aipatzen zituen lau aro horietarik hirugarrenean nintzen dagoeneko, hiruretan hogeitertan neguan sartua, baina, bertsolariak erran ez bezala, gaztetako kontuak atzendu gabe nituen orainik. Nola bakarrik ibiltzen nintzen maiz kara hango karriken artean, Cuzcora egin nuen bidaiaren artekek hainbertze oroitzapen ekarri zizkidaten gogora, nire bizitza lanbrotuan zehar zinez edo ustez gertatuak, eta horiek guziak mantso-mantso paper mutur batean paratzen hasi nintzen. Hasteko paper mutur horrek bertze paper mutur bat eskatu zidan berehala, eta bigarrenak hirugarren bat, eta hiru horien ondotik paper handiago bat hartu behar izan nuen, orri bat osoa, eta bertze bat ere gero, eta azkenean aise paper eta orri gehiago, ia ez nituen kontatzen, gertaerak pilatzen hasi baitzitzaizkidan behatzen artean ezin gelditu, denak gainbehera eta baimenik gabe heldu balitzaizkit bezala. Paperak bete ahala, hango historiak, eta hemengoak, nire bizitzan aspaldi gertatuak eta oraingoak –denak batera etortzen baitziren uholdean, bereizketarik gabe–, ahal nuen moduan josten saiatu nintzen, tarrapatuta batzuetan, atzendu baino lehenago, baina, egia erran behar baldin badut, azkenean ongi ez nekien eskribitzen ari nintzen hura bidaiaren oroitzapena zen, edo eskuek, horretako baimenik izan gabe, irristan ekoizten zuten ezin baratuzko jarioa.

Gero, eskribitua leitu nuelarik, dena hala-hala uztea deliberatu nuen, lehenbiziko idatzaldian atera zitzaidan gisan, ez nuen gogorik-eta berriz ere gertaeren kontakizuna txukundu, garbitu, urratu edo zuzentzeko. Beldur nintzen, gainera, azkenean gertatu ez diren istorioak asmatzen hasiko ez ote nintzen. Hona, bada, ondoko lerroetan, aste hartako kronika pausatua, ene bizitzaren behalekutik ikusia.

URRIAK 1, ASTELEHENA

Etxeek, zenbakiak izan beharrean, izena duten toki batean sortua naiz. Ez dakit horregatik den, baina uda hartan, gazte, indartsu eta sasoi ederrean nintzelarik, Parisko bide luzea hartu nuen Hendaiako geltokian. Aitzineko egunean utzi nuen orrialdean ireki nuen liburua –bidea luzea zen-eta–, nire bidaia-lagunei zeharkako behako bat eman ondoren:

Arratsaldea bero zen, eta antzezlea dutxatik atera berria zen, buruko ilea bustia baitzuen irribarrea eskaini zidalarik atearen gibeletik. Soinean etxeko jantzi laxo eta koloretakoa zeraman. Nik ez nuen ehunez deusik konprenitzen orduan (orain ere halatsu), baina lepoa eginen nuke zetazko soineko mehea zuela gainekoa, distira baitzuen, eta berehala ohartuko nintzenez hari, aski irristakorra baitzen: “Bonjour” erran zidan, atsegin bera, eta nik barre egin nion, hola, bortxatua arras, txunditua gelditu bainintzen...

Orrialde andana bat leitu ondoan, handik ordu batzuetara Austerlitzten atera nuen hanka, eta –begiak ongi irekiak– lur ezezagun hartan pausatu nuen oina, alde batera eta bertzera beha. Egon nintzen, bai, aita saindu batzuen gisan, lurrean muin ematekotan, eta doi-doi ez nuen egin hori, baina ahalketia naiz, eta lotsaizun pixka bat ere eman zidan azkenean, han, denen aitzinean, hori egiteak. Parisen ikusi nuen etxeek ez zutela izenik, zenbakiak bakarrik eta han zurgin Maozale bat harrapatu nuen, hotel handi kara batean lanean ari zena, Rue des Écoles izeneko karrikan, latin auzoaren erdi-erdian. Zurgin horrek erakutsi zidan, erakutsi –bera ez zen inoiz ere horretaz jakitun izan, zernahi gisaz–, Sylvia deitzen zen neska xarmant baten ateari giltza nola kendu. Maozale antiojodun hark, zeinen izena ez baitut gogoan une honetan, eta Sylviaren gorputzak, munduko bide berriak urratu zizkidaten. Parisek beti merezi izan du meza bat entzutea. Nik, badaezpada, bat baino gehiago entzun nuen, aitzinetik bizkarrean meza zama ederra baldin banuen ere.

ELEFANTE BAT ARIZKUNEN?

Inken lurra

Lomoker nago. Urrundik ezagun dira Cuzcoko lehenbiziko etxeak, elur pizar bat erakutsian uzten duten Andeetako mendi batzuen paretik pasatu ondoren. Hegazkin leihotik ezagun zen atlaseko mapa galdu dut da-goeneko bistatik, eta errealitatea ikusten hasi naiz orain, argi-hastean: etxe-etako teilatu ilun karak, autoak, futbol zelaiak, errepideak, inora ere ez doazen mendiko bidexkak, karrika zuzen eta makurrak. Ramón J. Senderrek zioen nonbait motor asotsak salbatzen duela bidaiaria, eta altzairuaren arimak gure belarrietan kantatzen duela. Hegazkina makurtzen hasten da, alde batera, halako tontortxo batzuen artetik sartzen da –eskuekin ukituko dituzula ere pentsatzen duzu, hain hurbil ikusirik– eta kolpeka egiten du beheiti, klanka-klanka, lurrera ailegatu nahian bai, baina azken urratsa egiten ausartuko ez balitz bezala. Karrikak eta autoak gero eta handiago egiten zaizkit, leihotik ikusten dudanez. Istant batean pausatuko gara aireportu koxkor horretan: 3.300 metro baino garaiago dago Cuzco, berehala erraten da hori gero.

Aitzineko pausaldia Limako aireportuan izan da, eta han erosi ditut gaur, gaua urratzen hasia zelarik, halako pilula batzuk garaiera handiko parajeek sortzen duten buruko min tekol eta ezin kenduko arintzeko asmoarekin. Limatik aireratu garenean egon naiz leihotik beha, lepoa luzatua, non ote zuen Atuq Aguirre Túpac-ek bere ostatua, baina ez dut ezagutzen Lima eta, gainera, han ilun zen orainik, eta ez naiz gai izan nontsu ote zuen ere atzemateko. Hemen azpiko aldean ikusten dudana Cuzcoko aireportu hau “Alejandro Velasco Astete” izenarekin zuten baitaiatu, eta nik jakin nahi nuen zergatik zuten aukeratu izen hori, zeren niri ez zidan inolako argibiderik ematen, Asteteren dotrinarena ez bazen, baina banuen uste aireportuak ez zuten inolako zerikusirik izanen apez harekin. Gero jakin nuen Alejandro Velasco Astete hori Peruko hegazkin pilotua izan zela eta 1925ean gurutzatu zituela Andeak lehenbiziko aldiz abioi koxkor baten gainean. Urte horretan berean, aire erakusketa bat egiten ari zelarik Punoko hirian, hegazkinarekin goiti eta beheiti, alde batetik bertzera, ezker-eskuin, berriz ere goiti eta beheiti, beha ze abila

naizen, orain heldu dena zailagoa, ikusiko duzue, motorrak asots ez ohiko bat egiten zuela iduritu zitzaion, kraaak!, eta ez zuen astirik izan bertze hausnarketarik egiteko: tresna tzar hark huts egin eta ikusleen gainean ez erortzeko, mendiaren kontra erraustu zuen aparatua. Bera ere han erraustu zen, zoritxarrez: gaur egun gelditzen zaion gauza bakarra Cuzcoko aireportuaren izena da. Bertze aunitzi ez zaio hori ere gelditzen, ez dago horrenbertze aireportu munduan.

Nekatua nago, artzangoran, ezin akolatuz, eta azken hegaldi honetan ez dut gogorik izan leitzeko ere: nire tabletean egunero erosten ditudan egunkariak deskargatu ditut Limako geldialdian, baina ez nuen indarririk sentitzen leitzen hasteko, bai baitaramat hogeita lau ordu pasatuxe lo egin gabe munduko bertze puntatik etorri naizenetik. Behako bat eman diet lehenbiziko orrialdeetako izenburuei begiak hetsi aitzinetik: *“Baño de Kaiku en la Concha”*, *“Hollande anuncia más impuestos para un ajuste de 33.000 millones”*, *“Contador toca la cima en una gran vuelta”*, *“Urdangarín y la infanta Cristina cobraron un millón de Nóos”*, *“La construcción de pisos se desploma un 71% en Euskadi en el último año”*, *“Francia roza la recesión y anuncia su mayor ajuste en 54 años”*... Ez, egia errateko, ez nuen arrazoi sobera zerbait gehiago jakiteko gai horietaz. Gizartearen balioak hankaz goiti jarri dizkigute.

Minutu pare bat egon naiz lo, ez gehiago, ametsetan ez dakit zerekin, goragune horietan, eta neke horrekin, ametsak fitexko urratzen baitira, eta zirrikek berehala jo dute lurra: pilotuek toki sobera ez dutelarik holako munstroa patxadaz geldiarazten hasteko, motorrek tente jartzen zaituzten asots ozen hori ateratzen dute. Iduri du aitzineko aldean dudan lagunaren bizkarra janen dudala deskuidatzen banaiz.

Inken lurean nago.

Inkak, utzidazue hala deitzen, nahiz ongi aski dakidan hitz horrek Tahuantinsuyo izeneko zibilizazioko aitzindariak bakarrik izendatzeko balio zuela. Kitxuen zibilizazioa. Baina hautatu hitz hori epikoa da, eta biziki ongi heldu zait kontatu nahi dudan epopeiaren berri emateko.

Kabinatik atera, eta maletaren bila abiatu naiz. Nire aldamenen gazte batzuk daude, oihuka eta marmarka, ajataka batzuk, eta haien besoen artetik egiten ditut ahaleginak zintak maleta ba ote dakarren ikusi nahian. Aitzineko aldean, zintaren bertze aldean, bi andre gazte, bat ilehoria, eta

bertzea ile beltzekoa, ez dute hegoamerikar itxurarik, gehiago Leongo itxura. Irriz ari dira elkarren artean, ahoazpiz bezala: “Elisa” iduritu zait erraten diola ilehoriak bertzeari, baina beharbada ez dut zuzen konprenitu. Eta beltzaranak “Maite” edo holako zerbaite erran dio, baina ez nintzateke harrituko hori ere nire asmazio hutsa balitz. Horrenbertze ordu pasatu ondoren edozein gauza. Eskutik hartuak daude, maletak noiz ailegatuko. Eta kontent. Hain kontent, non Elisa delako horrek musu ematen baitio ilehoriari. Horretan ohartzen naiz maleta heldu dela, eta eskua gazte guzien beso eta hanken artetik pasatu eta giderretik hartzen dut. Elisak eta bertzeak hizketan segitzen dute, presa gabe bezala, inori ere kasurik egin gabe, eta halaxe uzten ditut, Boticelliren margolan batean ikus daitezkeen irudien itxura dute. Fresko egiten du, eta bizkarren gainetik saiatu naiz nire bila etorri behar zuena nonbait atzematen nuen: Janire Marlyng. Janire Marlyng erran zidan deitzen zela, eta karteltxo batekin izanen zela atarian nire zain.

Ez dut inoiz ere gogoko izan kartelen kontu hori, nire izena han eskribitua ikustea. Han bertze edozein gauza jartzeko erraten diet, “Gaseosa La Pitusa” konparazione, holako egoeretan: mendian dagoen etxe batean sortu nintzen eta baserrikoak ez gara ohitzen gauza guzietara, gehienekin arazorik ez badugu ere. Erratzurizko baserria. Erratzurizen sortu nintzen, argiaren pausaleku eta haizearen ibiltoki zabalean, ez naiz oroitzen ongi noiz, aski denbora pasatu baita zurezko solairu hartan hanka lehendabiziko aldiz finkatu nuen egun hartatik.

Erratzuriztarrak

Ez dio inork ere Erratzuriz deitzen, egia erran behar baldin badut. Nik bakarrik, uste dut. Ttallak ginelarik –hemen, edozein irakurle lustredunek “txikiak ginenean” erranen luke, baina utzidazue nire eran konstatzen hau–, solasean ikasi genuenetik, “Erratzuriz” erraten genion, ‘u’ horretan indarra emanez, eta gure aita zena “Erratxutx” zen (azentua berriz ere ‘u’ horrek hartzen du) hango jendearendako, etxeko jabeak etxearen izena hartzen baitzuen beti. NANean ageri zen bertze hura bigarren mailakoa zen, ez zion inork ere kasu egiten, apaingarri bat baizik ez baitzen eguneroko harremanetan: Guardia Zibilari erakusteko balio zuen,

hiletan berri emateko edo paper ofizialak sinatzeko. Kontua da, ordea, aunitzek ez zekitela ere zein zen etxeko jabearen deitura, etxearen izena bakarrik. Bertze bi anaia gehiago nituen, Miguel Mari eta Felix. Ni, tarte-koa eta filderoena, perkal ederra.

Eta arreba bat ere, Asun, izana omen nuen, ni baino zaharragoa zena, baina meningitisak eraman zuen sehaskako haurra zelarik oraino. Argazkietatik bakarrik ezagutzen dut, argazkietatik bakarrik norbait ezagutzen ahal bada segurik. Gure etxeari “Erratxuriz” zioten deitzen, erran bezala, eta kanpokoekin erdaraz mintzo ginenean “Errázuriz”. Baina horren arrazoa bertze bat da, sarri kontatuko dudana, oroitzen banaiz. Bi anaiez gain, aita eta ama bizi nituen han, munduko miresgarrienak niretako, Etxepareri bereekin gertatzen zitzaion bezala nik ere beti eta beti gogoan ditut, baina ez nion aitari hark zion beldurra. Eta tia Tomaxa ere bizi zen han, gure aita zenaren izeba. Xahar-xaharra zen, edo hala iduritu zitzaidan niri beti, sortu nintzenetik. Harritzekoa zen haren gorputz kakoldua ikustea, naturaren mirakulu bat zen: “ele” bat egiten zuen, angelu zuzena, eta gerruntzetik hasirik gorputzaren gaineko aldea zolarekin paraleloa zen, eta bidea ikusteko burua goratu behar zuen, lepoa luzatuz, bertzenaz zola eta zangoak baizik ez baitzituen ikusten. Beti beltzez beztitua, ilea motots batean bildurik, etxetik ateratzen zen egunero bueltaxka bat ematera, goizean eta arratsaldean, eta atera orduko, arruntean gugandik iheska ibiltzen ziren etxeko katuak, erdi basak guziak, berehala hurbiltzen zitzaizkion, eta inguruan joaten ziren berekin buztanak goratuak, lurretik abiatzen zen gona beltzean goiti igan nahi balute bezala. Iduri zuten balletean ari zirela Tomaxaren inguruan, dantza pauso berriren baten probasaioak egiten. Urrundik ikusirik ematen zuen sorgina pasatzen ari zela belai erditik, isatsa bakarrik zuen falta. Andre ixila zen Tomaxa, eta ez dut inoiz ere jakin burua bere tokian ote zuen edo ez: aita zenak erraten zigun Baionan lanean ibili zela garai batean, gazte zelarik, eta han eman ziotela edatera egokia ez zen zerbait eta horrekin hondatu zela betiko. Egun txar batean hil zen, Iruñean nintzen ni garai hartan, baina ez zidaten gaztigatu deusik ere aste batzuk iragan artio, eta geroago jakin nuen bihotzeko batek joan zuela gorputz akitu hura. Ez nuen konprenitu zergatik ez zidaten deusik erran zendu zelarik.

Ene logelan Martinek ere egiten zuen lo. Martin etxeko mutila zen, Azpilkuetakoa. Hori zen nire familia. Baziren izeba-osabak ere, baina aitaren aldetik ez nituen ezagutu aitatxi eta amatxi: zerbait oroitzen naiz amatxi Mariaz, ohatzean eri lehenik, hila gero, jendez betea etxea, baina bizpahiru urte baizik ez nituen izanen nik hori gertatu zelarik. Amaren aldetik aitatziz oroitzen naiz, behin egun batzuk pasatzera etorri baitzen baserrira. Amatxik gehiago iraun zuen, eta marmelada bereziak prestatzen zizkigun, ikaragarri maite nituenak. Biak Etxebeherekoak ziren.

Martinek franko gauza kontatzen zidan, berari edo bere adiskideei gertatutakoak. Ez dakit funtsean egiak ziren, eta zinez gertatuak, baina hala balira bezala hartzen nituen nik. Bazen ixtorio bat behin kontatu eta burutik kendu ezinik ibili nintzena, hainbertze urtez. Bere adiskide min bati gertatu omen zitzaion, hamabi urte zituelarik. Erran zidan nola joaten ari ziren Soalar aldera hesola batzuekin, etxeko astoarekin. Bera eta Tiburtzio, eta astoa haien bazterretik soka batekin eskutik lotua. Heselak egiten ziren hesiak berri behar zirelarik, eta belai edo irazelai bazterrak hesteko ibiltzen ziren, alanbre ziztekariarekin, burdin hariarekin erran nahi dut. Kontua da egun hartan maldan goiti ari zirela, eta, halako batean, gizon bat atera omen zitzaien bide erdian, bihurtzune batean. Ez zuten ezaguna. Eta hark hola erran omen zien, bi mutikoen harri-durarako: “Mutilak! Kasu egin gero, zeren asto honek hirugarren puzkerra botatzen duelarik, hi, Tiburtzio, egon hadi erne, hilko haiz”. Eta hori erran, eta bertzerik gabe itzuli eta bere bidea hartu zuen gizon hark. Ez da erran beharrik bi mutilen kezka, etxera itzuli eta aitari erranen zio-agu asto puta hau berehala saltzeko, ni ez nauk egonen horren puzker-rrak usaintzen, alua hi. Eta hori deliberatu zuten, hala eginen zutela, baina egun horretako lana akitu behar zutela lehenik. Eta erabakia hartu bezala, hara non astoak botatzen duen puzkerra. Elkarri beha gelditu ziren, beldurtuak. Ez duk fitsik hor, ez dik horrenbertze puzker botatzen honek etxean, eta gaur aguantatuko diagu. Baina astoaren hertzeak pixka bat nahasiak zebiltzan, nonbait, eta bigarrena zien bota, sudurren parean bete-betean gainera. Orduan apuratu ziren arras, eta erabaki zuten zerbait egin behar zutela hirugarrena aditu aitzinetik. Konponbidea berehala harrapatu zuten: astoak zeraman zamatik hesola bat hartu, ongi zorrotzu astoak minik izan ez zezan, eta ipurditik sartu zioten, a

puta, botatzen ahal duk, bota, puzkerra orain, arraio ustela. Eta ajataka hasi ziren elkarren artean. Tiburtzio gibleko aldean jarri zen hesola eskuarekin hartu eta zapalka, ez zedin usteketan zulotik atera. Baina, maldarik handienez sartu zitzaion estualdi ederra asto gaizoari eta eginahalka hasi eta hirugarrena bota zuen, horrenbertze indarrez non ipurditik atera eta erdiz erdi jo baitzuen Tiburtzio kopeta erdian. Hantxe gelditu zen gure Tiburtzio.

Ixtorio hori frankotan etorri izan zait burura, zer ezdeusak garen pentsatzeko lana ematen zidan. Hori Martin zenari gertatu bide zitzaion. Baina baita bertze aunitz gauza ere. Berak erran zidan behin Erratxuxko gaineko bordan, Soalarren, haizeak bazter guziak abarrikatzen zituen goiz batean, hartz ikaragarri bat atera zitzaiola, eta lasterka bordan sartu behar izan zuela iheska, eta zapi zuri bat abatzean altxatzen zuen ez-tian sartu ondoan atera ziola hartzari leiho ttipi batetik, hator mutil, hator etxera. Eta hartza hurbildu zelarik, ez-tia usainka eta trapu zuri harekin harriturik, zertan ari duk, honek bakea eskatzen dik pentsaturik hantxe berean bi tiro eman ziola, pan-pan, eta hartza, tiroak ez gogoko izaki, saltoan gibelka joan zela, pelikuletan indioei gertatzen zitzaien gisan. Eta bertze batean, han berean, artalde baten zaintzan ari zelarik, bildots sortu berriei beha, arrano beltz bat hurbildu omen zen, eta sekulako abia-duran behehitu eta Martinen ondoan zegoen bildots koxkor bat hartu omen zuen atzaparretan. Baina Martin ez zen kikildu, ez: salto egin eta bildotsari lotu omen zitzaion. Arranoak borts bat metro bai egin omen zuen goiti, baina azkenean Martin eta bildotsa utzi behar izan zituen. Jauzi hura zela eta, bildotsak hanka hautsi omen zuen, eta janbaka omen zebilen egunez eta gauez, minberatua. Martinek erabaki zuen hoberena zela griselan prestatzea, eta bazkari eder bat egitea, bijilia eguna baldin bazen ere. Gainera, egin zuen bere baitan, ze arraio, basarraketa dela erranen zioat nagusiari. Hantxe gelditu zen leiho ondoan gure ama zenak prestatu bakailaoa.

Utrecht-ko hotela

Diodan, bide batez, Martinek bere istorioak kontatzen zizkidan garai horretan, Europako bertze toki batean, Utrecht-en, aise geroago jakinen

nuenez, nire adina zen neskatiko bat hazten ari zela, baina hura ez zen Soalarrera joaten, nik egiten nuen gisan. Haren familiak hotel bat zuen, eta neskatikoak 21. gelan egiten zuen lo, bere ahizparekin. Sylvia zuen izena, eta usteketan gurutzatuko zen nirekin urteak geroago. Martinek bere ixtorioak kontatzen zizkidalarik nik ez nekien deusik ere Sylviaren gainean. Ni gure belaietan lasterka ibiltzen nintzelarik, hura asotsik egin gabe pasatzen zen gelen arteko iraganbideko argi gorrien azpitik, ez zedin loak hartua zuen bezeroren bat nahigabe eta usteketan iratzarri. Bizikletan ibiltzen ikasi nuen, eta Martini eskatzen nion berea, gizonena, handia, eta barraren azpitik sartua makurrean ematen nien ahal nuen moduan pedalei, barra gainetik ez bainintzen ailegutzen. Hura zen bizikleta ona. Bazen etxean bertze bat, berdea, burdinazkoa, andreendako, txarragoa. Frantsesa zen, gauzez ekarria, bazuen hiru abiadurako aldagailua, ez zuen barrarik, baina bai hamabortz bat kilo. Sylvia ere ibiltzen zen bizikletan garai hartan, baina gehienetan hotel barenan, igande gauetan, ia inor ere gelditzen ez zelarik, familiako batzuk bakarrik, Hans “osaba” tarteko, bertze guziak etxerat joanak. Tabernara sartzen zen, mahaien inguruan itzuli bat egin, *Only You* The Platters taldeak kantatzen zuen musikaren laguntzarekin, eta hanka bat hedatzen zuen lehenik, eta gero bertzea. “Berriz ere –erraten zion Hansek–, egin hori berriz ere, baina orain bi belaunak batera goitituz”. Begiekin jateko moduan behatzen dio, ttua dariola, eta aldi berean bertze lanpara bat pizten du Sylviaren izterrak hobeki ikusteko. Aitzinetik pasatzen zaion aldi bakoitzean fereka egiten dio ipurdian eskuin eskuarekin. Gero, bere gorputzaren kontra hurbiltzen du, eta mingaina ateratzen du, umeari eskuak ezpainzapi batekin gibelesko aldean lotzen dizkion bitartean, dena jostetan bezala: *“Il bave, me lèche lentement de mon cou à mon temps, de bas en haut, puis recommence”*, idatziko zuen Sylviak berrogeita hamar urte geroago. Hans “osaba” zen Hôtel du Commerce-ko konfiantzako enplegatua. Izeba Alicek aurkitu zituen behin biak ezpainzapiarekin, *Only You* bozgorailuetan, The Platters plateren artean, bizikleta lurrean, eta Sylviaren gona gaineraino bildua, Hans arnasa eske eta hatsankatua, aurpegia arrosa kolore, neskatxa hura altzoan. Nik, garai hartan, arrosarioa errezatzen nuen, eta Martinen istorioak aditu. Egunero, erloju bat bezala, ilundu ondoan, sukaldean egiten ari zen lanak utzi

gabe, ama zenak arrosarioa hartzen zuen eskuetan eta “aitaren, semearen eta espiritu sainduaren...” hasten zen, aitzinetik abisurik eman gabe. Arrosarioa, bere misterio guziekin, bozkariozkoak edo gloriakoak: “zure semea sortu zelarik, zu dontzeila utzirik, den-denak gelditu ginen gozo beterik”. Niretako, hala ere, denak ziren dolorezkoak: “Bortz mila azote hartu zituen gure bekatuengatik. Zer gaitz handia den bekatua, kontu atera hemendik”. Amak lehenbiziko hitzak erran orduko, edo lehenago ere, maiz kara, denak galtzen ziren han. Aita, lehenbizikoa, berehala behi bat estualdi batetik atera beharra ezinbertzez, behitegira joaten zen. Berehala, Miguel Mari. Eta ttallenak gelditzen ginen, mar-mar-mar, Tomaxarekin batera, misterio haietarik deusik ere konprenitzen ez gauen zerbait erraten mar-mar-mar.

Biharamunean bota zuten Hans lanetik. Sylviak bederatzi urte zituen. Maiz ohartzen nintzen, adin horrekin, etxeko zezena nola igaten zen gure edo inguruko etxeetako behien gainera, baina ez nekien sexua zer zen, eta ez nekien ongi zer zen zezenak jauzika egiten zuen hura. Aparretan ikusten nuen, berotua, eta burdinazko bezalako zerbait ateratzen zitzaion azpitik, gorria eta luzea, eta behiari sartzen zion. Behia gorputza biltzen zion zurezko inguru batean estekatzen zuen gure aita zenak, eta han lotu. Gero, zezena libratzen zuen ganbelatik, eta polea bat tartean, katearekin ongi trenkatua, bide ematen zion behia zen tokiraino. Inguruan egoten ginen gu, eta behiaren jabea ere, gure etxea zezen postu ofiziala baitzen, eta orduan, betiere bi animaliak kontrolpean, zezena behi gainera igaten hasten zen usainka egon ondoan eta burdinazko bezalako zer hura ateratzen zuen, bustia, eta klanka-klanka-klanka hasten zen, ukaldika bezala. Behia isilik egoten zen, handiena ere auhen zerbait egin, eta hura ere aparretan hasten frankotan.

Nik harriturik behatzen nion Martini, bere ixtorioekin hasten zelarik. Xurrutumokon gertatu bertze hura kontatu zuenean bezalaxe. Ormartearen eta gure etxearen artean dagoen erreka da Xurrutumoko, eta arratsalde batean gertatu zitzaion, omen, berari beti mendira joatea gustatzen zitzaion, eta beti eskopetarekin joaten zen. Orainik etxean dago bigarren karlistaldikoa dela ematen duen eskopeta horrekin. Bada, han, Xurrutumokon, elefante bat atera omen zitzaion, bat-batean, den gutiena ere espero zuelarik, zuhaitz baten gibeletik. Eta apuru hartan, ez baitzekien nola

libratu elefantetik, hurbileko arbola batera igan omen zen, hala erran zidan, eta handik hasi omen zitzaion tiroka, elefantea bere sudur luzearekin Martin zutik zegoen adarra hartu eta indar guziarekin inarrosten saiatzen ari zen bitartean. Martin gaizoak erori ez erori, doi-doi segitu zuen adarraren puntan, aldapeko sagarra bezala, baina xori kantaririk gabe. Kartutxo guziak akitu omen zituen, baina elefantea hantxe gelditu zen, hurbiletan bertze gizajo bat ikusi zuen artio. Orduan, Martinek, tarrapataka jo zuen etxeko bideari. Ez dakit kontakizun hori zuzena ote den, egia, nik ez baitut elefanterik ikusi Baztanen. Handik urte batzuetara gure Martin Azpilkuetara ezkondu zen, osasun arazo larriak izan zituen eta gazte hil zen.

Batzuetan Erratzura joaten ginen, oinez, gure larraskatik barna. Berehala ailegatzen ginen. Erratzun bizi zen aitaren arreba bat, baina, ez dakit ongi zergatik –familietan inork ez daki zergatik sortzen diren batzuetan horren haserre gordinak, mendeetakoak izaten balira bezala–, badut uste garai hartan bi familiak kuterman ziren, aise geroago ezagutu nituen nire izeba-osabak, hamar urte ongi eginak. Herrietan, esku beltz bat lanean ariko balitz bezala, batzuetan sortzen diren ezin ikusiak izanen ziren, pentsatzen dut. Herri hori “Erratzu” deitzen genuen euskaraz ari ginelarik, eta “Errazu” erdaraz, hori sistematikoa zen gure artean, erdaraz mintzatzen ikasi nuen bezain fite, eskolan, sei urte nituelarik.

Bada, *Erratzu* izan dadin, edo izan dadin *Errazu*, kontu horretatik atera dut nik gure etxearen izena, ‘tzu’ horrekin ahoskatzen dudana gisan, pentsatzekoa baita ‘tzu’/’zu’ hori berdin gertatzen dela Erratzurekin eta Erratzurizekin, eta “Erratxuriz” erraten bagenion, eta erraten badiote orain ere herrian, pentsatzekoa da horren arrazoia izenaren erabilera hipokoristikoaekin lotua izanena dela. Ez galdetu zer den hipokoristikoa, nik ere wikipedian begiratu beharko bainuke, baina badut uste horrek maitasunezko moduzko zerbaite adierazten duen. Ez dakit, hala ere, gizonen eta andreen arteko harremanetan (edo gizonaen eta andrazkoen erran behar dut?) hipokoristikoa ibiltzen diren. Ez dut inoiz ere holakorik aditu. Baina baliteke.

Horiek ziren nire haurtzaroko jendakiak eta ixtorioak. Baina baditut bertze jendaki batzuk XVII. mendekoak ere, eta haiei buruz zerbaite erran

nahi nuke, Janire Marlyng hau agertzen zaidan bitartean, iduri du atzendu zaiola arras hemen naizela.

MIRAMAMOLIN ETA TXILEKO ARMADA, JAINKOAREN GRAZIAZ

Berrogei urte baino gehiago isilik

1918an, gure aita zena jostetan ari zen etxearen kanpoko aldean, eta ohartu zen “Buxtinxelaitik” tipi-tapa heldu zirela etxe alderat, apez bat –bere sotana eta kapela beltzarekin– gidari, arrotz egiten zitzaizkion lagun batzuk. Elena izeneko andrea hola sartu zen gure sortetxera urte hartan, bere soineko zuriarekin bizkarrean. Geroago jakinen zuen gure aitak herrian meza entzun ondoren joan zela Elena Erratzurizera, oinez, ez zen bertze modurik. Meza latinez entzun zuen, jakina, eta apezak, predikuan, elkar maitatzeko erran zien, zer gerta ere, denak garela berdin Jainkoaren aitzinean. Elena ez zen ohartu, segurki, Bozateko agoteak haiendako espresuki egina zen bertze ate koxkor batetik sartzen zirela parrokian, gibe-leko saihetseko aldetik, inori ere traba egin gabe. Ezin ziren sartu Baztango nobleak –erran nahi baita, Baztango nekazariak, eta lurren jabeak– sartzen ziren ate beretik. Elenak ezin zituen ikusi existitzen ez zirenak, bistan da. Agoteak lanbroa baino aise gardenagoak ziren.

Segur naiz orduan jendez betea harrapatuko zuela Elenak Erratzuriz. Anai-arreba aunitz ziren gure aita zena eta senideak. Zaharrena, Emiliano. Ez dakit nik Elenak ikusiko zuen, edo dagoeneko Mexikora joana zen. Gazte joan baitzen, soldaduko kaxan sartu aitzinetik, eta han hasi lanean. Hastean, denboratik denborara gutunak eskribitzen zituen, erdaraz eta ahal zuen bezala, ez baitzen eskolatua, baina gero betiko, edo ia-ia betiko, isildu zen, eta ez zen etxean haren berri zuzenik izan, lurrak irentsia. Berrogei urte baino gehiagoz, hila balitz bezala, isilik. Beti aditzen nion etxean aita zenari bazuela Emiliano izeneko anaia Mexikon, zaharrena zela, baina ez genuen haren berri, misterio bat bezalakoa zen niretako. Nik nire anaiei behatzen nien, eta nire baitan egiten nuen: “Behazak horri, Felix mendiaren bertze aldean betiko isilik gelditzen balitz bezala”. Ez nuen konprenitzen deus. Nola baziren Mexikon lanean herriko bertze aunitz,

horietako bat baino gehiago gure etxetik pasatzen zen, noiz edo noiz uda pasatzera herrira etortzen zirelarik: ohitura hedatua zen etxe batzuetara jendetasunezko bisitak egitea orduan, berehala atzematen zenituen bez-titzeko modu dotoreagatik eta ekartzen zituzten autoengatik. Haiek erra-ten zioten aitari zer gertatzen zen bere anaiarekin: “Ongi duk, izugarri, egon hadi trankil. Lanean ari duk gogorki”. Emiliano han zen ezkondu, baina ez gintuen gonbidatu, ez gutunik igorri, eta 60ko hamarkadan bat-batean agertu zen bere andrearekin etxean ezezagun baten gisan, ni Iru-ñean egon nintzen berarekin eta haren andrearekin ordu erdi batez, gaz-telaniaz. Gaztelaniaz egiten nien, ez nekien ongi *de tu* edo *de usted* egin behar nien, haiek *mexikera*z erantzuten baitzidaten eta *usted* ibiltzen zu-ten batzuetan nirekin, mutil koxkor bat orduan, ez dakit non gelditu zi-tzaion euskara herdoildua. Txanpon bat eman zidan (anaiei ere bertze ho-rrenbertze), ez dakit dolar bateko izanen zen. Ez zen turroia uzteko mahaiaren ondoan zen etxeko gonbidatuen gelan lo egiten gelditu (huts handia hori), eta nahiago izan zuen, nire osaba arrotzak, etxeko familia hurbilaren ordeztu hotel baten deserosotasun arrotza dastatu. Espainiako hiri batzuk bisitatu zituen, nonbait, berriz ere Mexikora itzuli zen, ez zuen bertze gutunik idatzi, eta han hil zen. Ez genuen bertzerik deus jakin, ez dakit non hilobiratu zuten. Ez dakit haren ondasunak, ondasunik baldin bazuen bederen, nora joan ziren.

Ez zen, hala ere, anaien artean bakarra Mexikon. Xalbadorrek gero-ago erranen lukeen gisan: “Etxetik hainbertze gazte/ kanporat zorion eske/ zoraturik bazoazte”. Ez dakit zorion eske joan ziren, ez dakit zo-raturik ziren, baina han zen Jesus ere, gure aita baino gazteagoa. Denak etxetik joanak biziaren irabazteko. Aldika etortzen zen udetan etxera, eta gonbidatuen gelan biltzen zen, guk han, tabloi batekin egina baikenuen apalategi batean umotzen utzi sagarrak bildu ondoren. Haren bila joa-teko egin zuen gure aitak bere lehenbiziko bidaia Madrila, bertze adis-kide batzuekin, haiek ere beren senideen bila. Urteetan etxean egon zen jostetako Iberiako hegazkin xarmant batekin itzuli zen: lurtean eskue-kin ibili eta motorretako besoak mugitzen zitzaizkion. Egun batean, ez dakit nork joanen zuen, hegazkin hura airean desegina bezala desagertu zen. Ez zen lehenbiziko aldia: erregeek ekartzen zituzten jostailuak ere –Olentzerok basoan segitzen zuen garai hartan– batzuetan lehenbiziko

asteen joaten ziren, inork ez daki nola, ondoko urtean zapaten artean berriz ere agertzeko, hori ere ez dakit nola gertatzen zen. Umeak beti egoten ginen tio Jexuxen zain, sosa ematen baitzigun. Eraman erraza zen, gainera, solasturi handia, eta gustura egoten zen gurekin hizketan, atsegina tratuan. Etorri zen azken aitzineko aldian, Renault-12 xuri bat erosi zuen (ez dakit gidatzeko gai zen, uste dut ezetz), eta, berriz ere lanera Mexikora itzuli zelarik, autoa Erratzurizen utzi zuenez gero, inguruko guzien inbidia pizten genuen auto xurian mezara joaten ginelarik. Gero, handik urte gutitara, berriz ere etorri eta Erratzuko andre batekin ezkondu zen, eta autoa berarekin eramane zuen. Renault-5 bat erosi zuten orduan Erratzurizen. Ez Emilianok ez Jesusek ez zuten seme-alabarik. Ez dakit nik Elenak ikusiko zuen Jesus: edo arras ttalla zen, eta sortzeko zen orainik.

Bazuen aitak bertze anaia bat ere, Leoncio. Tampicon zuen lana. Leoncio zen bigarren anaia, eta hura ere Mexikora joan zen. Gure aitak, hirugarren anaiak, hartu zuen orduan etxea bere gain bi anaia gehienak, Emiliano eta Leoncio, kanpora joan zirelarik. Leoncio Mexikotik ezkondu zen, Amaiur Iruingo alaba batekin (eta haren anaia, Patxiko, gure ama zenaren ahizpa batekin ezkondu zen). Ez dakit Leoncio inoiz ere etorri zen etxera. Andrea bai, andrea bi semerekin etorri zen, ni sortu gabe nintzelarik. Urte bat eman zuten Elizondoko ostatu batean. Kontua zen bi seme horiek, 10-11 urtekoak, katu basak baino basagoak zirela, eta amak nonbait domatu nahi zituen eta Lekarozko ikastetxean sartzea pentsatu zuen zela hoberena. Ez zuten gehiegi iraun, eta etorri ziren bezain basak itzuli ziren Mexikora, Baztango zezen guziak zirikatzen ibili ondoan. Etxean egon da, gonbidatuen paretan zintzilik, mutiko horien argazki bat hainbertze urtez, behin hurbildu zirelarik-edo aterea, baina norbaitek kendu zuen handik aspaldian. Ez naiz inoiz ere egon Mexikoko nire lehengusu edo lehengusinekin: denetara lau mutiko izan ziren azkenean, hori badakit, baina ez galdetu izenik, eta bat tiroz hil zuten orain dela urte batzuk, ez zituen Axularrek bezain konpainia onak. Baina haien ondokoekin harremanak izan ditut, Interneten bidez. Noizbehinka gauzak eskatu izan dizkidate (arbasoen sortze agiriak eta holakoak), eta hori izan da nik haien ondokoekin izan dudane tratu bakarra (segur aski ere, nire ilobak dira). Familiako batzuk, nik uste ez direla guti denetara, Mexikotik Estatu